



## 2021eko OTSAILAREN 16an EGINDAKO GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIako KONTSEILU ERREKTOREAREN BILKURAREN AKTA.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Gaztelako Atea 15, Gasteiz) eta 2021eko otsailaren 16ko 12:30ak direnean, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da Zoom bidez, eta honako pertsona hauek bertaratu dira:

- Presidentea: Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (hemendik aurrera, eLankidetz) eta haren Kontseilu Errektoreko presidentea.
- Bokala: Iker Atxa Zaitegi jauna, Gizarte Berrikuntzako zuzendaria, Lehendakartzaren ordezkari gisa.
- Bokala: Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- Bokala: Sofía Marroquín Guerrero andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- Bokala: Patricia Bárcena García andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- Bokala: Imanol Zuluaga Zamalloa jauna, Kabineteko zuzendaria, Osasun Sailaren ordezkari gisa.
- Bokala: Jone Miren Fernández Landa andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako zuzendaria, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Azpiegitura Sailaren ordezkari gisa.
- Bokala: Fernando Iturriaga jauna, Programa eta Azterlanen aholkularia, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkari gisa.
- Bokala: Leixuri Arrizabalaga Arruza andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko presidentea, Eusko Legebiltzarren ordezkari gisa.
- Bokala: Oihana Etxebarrieta Legrand andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko kidea, Eusko Legebiltzarren ordezkari gisa.
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria.

Era berean, gai-zerrendan dauden gaiak aurkezteko laguntza teknikoa eskaintzearen, honako hauek ere bertaratu dira, gonbidatuta: Jose Antonio Rodríguez Ranz jauna, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea, Blanca Pérez Jiménez andrea, eLankidetzako Administrazio eta Zerbitzuetako arduraduna, eta Alazne Camiña Izkaria, eLankidetzako Koordinazio Teknikoko arduraduna.

## Sarrera

eLankidetzako eta haren Kontseilu Errektoreko presidentek hartu du hitza bertaratutakoei ongietorria emateko, eta bilkurari hasiera eman dio, gai-zerrenda honekin:

1. *2020ko abenduaren 15ean egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea.*
2. *2021eko Jardueren Urteko Plana onartzea*
3. *Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2021erako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea*
4. *2021eko laguntza eta dirulaguntzen deialdiak egilesteko irizpide orokorrak onartzea*
5. *2021eko laguntza eta dirulaguntzen deialdien egutegiaren aurreikuspenari buruzko informazioa*
6. *2021eko zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea*
7. *2020ko proiektuei laguntzak emateko ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoei buruzko informazioa*
8. *Galde-eskeak*

Lehendakariak, bilkurari hasiera emanez, urteko lehen Kontseilu Errektorea dela nabarmendu du, eta beraz, aztertzeko hainbat gai daudela adierazi du, gai ekonomikoen alorrean bereziki.

Aipatutako dokumentazio guztia ahal izan den aurrerapenez helarazi zaio Kontseilu Errektore honi.

### **1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea**

Bertaratutakoek ohar bat bera ere egin ez dutenez, 2020ko abenduaren 15eko bilkuraren akta onartu da, bertaratu diren guztien aldeko botoekin.

### **2. 2021eko Jardueren Urteko Plana onartzea**

Paul Ortegak azaldu ditu 2021. urterako heldu beharreko jarduera eta erronka nagusiak, eLankidetzaren berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Sail berriari atxiki zaiola aipatuz eta alde aurretik emandako informazioa zabalduz.

Beatriz Artolazabalek adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola 2021eko Urteko Plan hau onartzea.

Kontseilu Errektorearen bilkurara bertaratu diren pertsona guztien aldeko botoekin onartu da.

### **3. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2021erako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea**

Beatriz Artolazabalek eLankidetzaren dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta 2021eko Funts Banagarrien proposamena aurkeztu ditu, onartzeko. Horietan, eLankidetzaren zuzeneko dirulaguntzetara eta deialdietara bideratutako zenbateko globalak eta ehunekoak zehaztu dira, baita erakunde bakoitzak eskuratu ahal izango dituen funtsen gehieneko zenbatekoa (funts banagarrien % 7) eta aurreikusitako estimazioen aurreikuspen bat ere, aurreko urteetako ehunekoak kontuan hartuz.

Jarraian, Blanca Pérezek ildo bakoitzaren banaketa ekonomikoa azaldu du, oro har.

2021eko otsailaren 11n, Eusko Legebiltzarrak Euskal Autonomia Erkidegoko 2021erako Aurrekontu Orokorrak onartu zituen, 1/2021 Legearen bitartez, eta horren ondorioz, eLankidetzaren 2021erako aurrekontua 49,3 milioi euro da. Aurrekontu horrekin, aurreko konpromisoetako 24,6 milioi euroko zenbatekoari (egikaritzen ari diren dirulaguntzak) eta langileei eta funtzionamenduari buruzko gastuei egin beharko zaie aurre. 2020ko aurrekontutik 5,4 milioi euro epekatotzat ezarri ditu eLankidetzak, aurreikuspenaren arabera 2020an ordaindu behar ziren arren, dagozkien gastuak justifikatzeko txostenak oraindik ere aurkeztu ez dituzten ordainketak egin ahal izateko.

2021erako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan 6 laguntza-ildoak ez ezik, zuzeneko lankidetzako ekimenak ere biltzen dira; bakoitzaren diru-kopurua azaltzen da; eta aurreikusitako eskaeren estimazioa ematen da; aurreko urteetako ehunekoak aintzat hartuta.

Deialdi eta laguntza asko urte anitzekoak direnez, lehen deialdietarako falta diren 19,8 milioi euroekin 47,4 milioi euroko laguntzak eman ahal izango dira, erantsitako taularen arabera banatuta. 2021eko dirulaguntza guztietan erakunde bakoitzak jaso ahal izango duen gehieneko zenbatekoa 3.320.228,00 euro izango da (urteko FBen % 7).

Azalpen horren ondoren, Paul Ortegak aurtengo deialdien berezitasun nagusiak aipatu ditu. Era berean, PGM Dekretua aldatzeko zain dagoela adierazi du, eta urtean zehar izapidetzea espero dela.

Beatriz Artolazabalek adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola proposamena onartzea. Proposamena onartu da, Sofía Marroquinen eta Josu Urrutiaren kontrako botoekin.

### **4. 2021eko laguntza eta dirulaguntzen deialdiak egilesteko irizpide orokorrak onartzea**

Alazne Camiñak deialdiak egilesteko irizpide orokorrak aplikatzeko proposamena azaldu du.

Beatriz Artolazabalek adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola deialdien izapidetzeari hasiera eman ahal izateko bi proposamenak onartzea.

Bozkatu egin da eta Kontseilu Errektorearen bilkurara bertaratu diren pertsona guztien aldeko botoekin onartu da.

#### **5. 2021eko laguntza eta dirulaguntzen deialdien egutegiaren aurreikuspenari buruzko informazioa**

Alazne Camiñak deialdi-egutegiaren aurreikuspena azaldu du.

Beatriz Artolozabalek adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola deialdien izapidetzeari hasiera eman ahal izateko bi proposamenak onartzea.

Bozkatu egin da, eta Kontseilu Errektorearen bilkurara bertaratu diren pertsona guztien aldeko botoekin onartu da.

#### **6. 2021eko zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea**

Alazne Camiña zuzeneko dirulaguntzak aurkeztu ditu, eta Kontseilu Errektoreko kideei horiei buruzko dokumentazioa helarazi zaie, alde zurretik.

Aurkeztutako zuzeneko dirulaguntzen proposamen guztiak bozkatu dira eta gehiengo absolutuz onartu, dagokien izapidetzaren ondoren, Gobernu Kontseiluari helarazteko, onar ditzan.

#### **7. 2020ko Lankidetzaren Proiektuetarako laguntzak emateko Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoei buruzko informazioa.**

Paul Ortegak jakinarazi du gora jotzeko sei errekurtsok jarri direla 2020rako proiektuetarako laguntzak emateko Ebazpenaren aurka: Errekurtsok guztiak ezesleak dira.

#### **8. Galde-eskeak**

Ez denez beste gairik planteatu, bilkura amaitutzat jo da. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikularen lehen paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.

OE<sup>o</sup> Beatriz Artolazabal Albeniz andrea,  
Agentziako eta haren Kontseilu  
Errektoreko presidentea.

Paul Ortega Etcheverry  
Kontseilu Errektoreko idazkaria  
GLEAko zuzendaria